

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

1843

AGINDUA, 2019ko martxoaren 29koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan erregistratu behar diren datuak, bai eta bidali behar diren inprimakiak, irizpideak eta epeak ere.

Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroa sortzeko eta arautzeko urriaren 23ko 151/2018 Dekretuak dioenez, Erregistroak guztiz operatibo egon behar du hiru hilabeteko epean, dekretuaren 4.4, 6.1 eta 7.1 artikuluetan aipatzen den agindua indarrean jartzen den egunetik hasita.

Arau horiek gaikuntza ematen diote Segurtasuneko sailburuari, bai agintaritzako agenteek bidali beharreko trafiko-istripuei buruzko inprimakiak onartzeko, bai agintaritzako agenteek eta gainerako informazio-iturriek egin beharreko bidalketari buruzko datuak, aldagaiak eta irizpideak zehazteko.

Inprimakien edukia gutxienez bat etorriko da informazioa Trafiko Istripuen Biktimen Erregistro Nazionalera bidaltzeari buruzko estatuko arauetan ezarritakoarekin.

Esandako guztiagatik, agindu honen bidez abian jartzen da Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroa, urriaren 23ko 151/2018 Dekretuaren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraikiz.

Hori dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da, batetik, onartzea zer datu bidali behar dituzten Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistrora Ertzaintzako agenteek, trafikoaren zaintzaz eta kontrolaz arduratzen diren udaltzainek eta behartuta dauden beste batzuek (Euskal Estatistika Erakundea, osasun-zentroak eta errepideen titularrak), eta, bestetik, zehaztea datu horiek bidaltzeko erabiliko diren irizpideak eta epeak.

2. artikulua.– Erregistro-datuak.

Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan honako hauek erregistratzen dira:

a) I. eranskineko inprimakian ezarrita dauden eta trafikoaren zaintzaz eta kontrolaz arduratzen diren agintaritzako agenteek bildutako datuak, kontuan hartuta II. eranskinean inprimakia bete-zeko zehazten diren irizpideak eta biktimen sailkapena.

b) Euskal Estatistika Erakundeak, osasun-zentroek eta errepideen titularrek bidalitako datuak, IV. eranskinean zehaztuta daudenak.

3. artikulua.– Datuak bidaltzeko epeak.

1.– Trafikoaren zaintzaz eta kontrolaz arduratzen diren agenteek -Ertzaintzakoak, hiriarteko bideetan; udaltzaingoetakoak, hiri barruko bideetan- epe hauek dituzte datuak Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistrora bidaltzeko:

2019ko apirilaren 11, osteguna

a) Hogeita lau ordu, istripua gertatu denetik, azkar ematekoak diren datuak (III. eranskinekoak) emateko, istripuaren ondorioz hildakoren bat izan bada edo ospitaleratua izan den zaurituren bat izan bada.

b) Hamar egun, istripua gertatu den egunetik, azkar ematekoak diren datuak (III. eranskinekoak) emateko, biktimak eragin dituen istripua izan bada eta aurreko apartatuan aipatzen den egoeraren bat gertatzen ez bada.

c) Istripua gertatu eta hilabetera, I. eranskineko inprimakiaren gainerako atalak osorik betetzeko.

2.– Euskal Estatistika Erakundeak, osasun-zentroek eta errepideen titularrek hilabeteko epea izango dute, Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroak eskatutako datuak bidaltzeko, eskatzen zaizkien egunetik zenbatzen hasita.

4. artikulua.– Biktimak eragin dituzten trafiko-istripuen estatistika.

Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan bildutako informazioa oinarria izango da biktimak eragin dituzten trafiko-istripuen estatistika prestatzeko, V. eranskinean bildutako estatistika-adietazle nagusien definizioen arabera.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 29a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

2019ko apirilaren 11, osteguna

I. ERANSKINA

BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN TRAFIKO-ISTRIPUEN INPRIMAKIA.

(Datu hauek trafikoaren zaintzaz eta kontrolaz arduratzen diren Agintaritzako agenteek bidali behar dituzte Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistrora)

POLIZIAREN ESPEDIENTE-ZENBAKIA		<input type="text"/>	
IBILGAILUEN MATRIKULAK			
ISTRIPU-DATA	<input type="text"/>	(1)	<input type="text"/>
ISTRIPU-ORDUA	<input type="text"/>	(2)	<input type="text"/>
		(5)	<input type="text"/>
24 ORDUAN HILDA	<input type="text"/>	ZAURITUEN OSPITALERATZEA > 24 or.	<input type="text"/>
		ZAURITUENTZAKO OSASUN-LAGUNTZA <= 24 or.	<input type="text"/>
IBILGAILUAK	<input type="text"/>	GIDARIAK	<input type="text"/>
		BIDAIARIAK	<input type="text"/>
		OINEZKOA	<input type="text"/>
ERREPIDEA/KALEA:	<input type="text"/>		PK/ZK.: <input type="text"/>
UDAL-MUGARTEA:	<input type="text"/>		NORANZKOA:(G)oranzkoa (B)eherezkoa (M)istoa
LEKUAREN KOORDENATUAK (UTM ETRS 89 30 N)	<input type="text"/>		X: <input type="text"/> Y: <input type="text"/>

2019ko apirilaren 11, osteguna

BIDEAREN EZAUGARRIAK			
<u>EREMUA</u> O Errepidea O Autobidea zein autobia hiritarra O Zeharbidea O Kalea O Beste bide batzuk	<u>BIDE MOTA</u> O Ordainpeko autobidea O Bidesaririk gabeko autobidea O Autobia O Ibilgailuentzako bidea O Galtzada bikoitzeko errepide arrunta O Galtzada bakarreko errepide arrunta	<u>BIDE MOTA</u> O Zerbitzu-bidea O Lotura-adarra O Kalea O Auzo-bidea O Esparru mugatua O Bizikleta-bidea O Bizikleta-zidorra O Beste batzuk	<u>EZAUGARRIAK</u> O Hiri-inguruko eremua O Ingurabidea O Bizitegi-kalea O Oinezkoentzako gunea O 30eko gunea O Berariazko araudia duen gunea O Beste batzuk
<u>TITULARTASUNA</u> O Lurralde Historikoa O Munitzipala O Estatukoa O Beste bat			
<u>BIDEAREN NORANZKOAK</u> O Bi noranzko O Noranzko bakarra	<u>GALTZADA KOPURUA</u> O Galtzada bakarra O Galtzada bikoitza O Bi edo gehiago	<u>BAZTERBIDEA</u> O Ez dago O 1,5 m baino txikiagoa O 1,5m eta 2,49m artekoa O 2,50m edo gehiagokoa	<u>GALTZADAKO ERREIEN KOPURUA</u> O Goranzko noranzkoa O Beheranzko noranzkoa
<u>ERREIAREN ZABALERA</u> O 3,25 m baino gutxiago O 3,25m eta 3,75 m artekoa O 3,75 m baino gehiago	<u>■ ESPALOA</u> O Ez O Ibilgaitza O Bai, goratua ez O Goratua Zabalera _____	<u>OINPLANOAREN TRAZADURA</u> O Zuzena O Seinaleztatutako bihurgunea O Seinaleztatu gabeko bihurgunea O Ezezaguna	<u>ALTXAERAREN TRAZADURA</u> O Laua O Arrapala O > % 5 O <= %5 O Aldapa O > %5 O <= %5 O Bat-bateko sestra-aldaketa O Ezezaguna
GURUTZAGUNEAREN INFORMAZIOA			
<u>GURUTZAGUNEAREN INFORMAZIOA</u> O Bidegurutzearen edo gurutzagunearen eraginpeko eremutik kanpo O Bidegurutzearen edo gurutzagunearen eraginpeko eremuan Hirigunea < 20 metro hiriartekoa < 200 metro	<u>BIDEGURUTZEA</u> O X edo + itxurakoa O T edo Y itxurakoa O Izar formakoa O Biribilgunea O Erdibitutako biribilgunea O Biribilgune txikia O Biribilgune bikoitza O Barreradun trenbide-pasagunea O Barrerarik gabeko trenbide-pasagunea ZEHARKATZEN DUEN KALEAREN EDO ERREPIDEAREN IZENA _____ _____	<u>■ LEHENTASUNAREN ARAUKETA</u> Δ Arau orokorra soilik Δ Zirkulazio agentea/ baimendutako pertsona Δ Semaforoa Δ STOP zirkulazio-seinale bertikala Δ UTZI PASATZEN seinale bertikala Δ STOP zirkulazio-seinale horizontala Δ UTZI PASATZEN seinale horizontala Δ Inskripziorekin gabeko bide-markak Δ Goratu gabeko oinezkoentzako pasabidea Δ Goratutako oinezkoentzako pasabidea Δ Bizikleta-bidearen marka Δ Aldi baterako seinalea Δ Beste seinale bat	
<u>LOTUNEA</u> O Lotuneak abiadura aldatzeko erreiak ditu, harekiko paraleloak O Lotuneak ez du abiadura aldatzeko erreirik paraleloan O Bidebanatzea			
SEINALIZAZIOA eta BALIZAMENDUA			
<u>ABIADURA-MUGA</u> O Muga orokorra O Seinalizazio espezifikoa Abiadura <input type="text"/> km/h	<u>ZIRKULAZIO NORANZKOA BANATZEKO ELEMENTUAK</u> Δ Banatzeko luzera-marra soilik Δ Zebra-marrak Δ Erdibitzailea Δ Alboko langa Δ Oinezkoentzako gunea edo lorategia Δ Beste bat Δ Bat ere ez	<u>BIDE-ZATIKO ELEMENTUAK</u> Δ Zubia, zubibidea edo gaineko pasabidea Δ Tunela Δ Azpiko pasabidea Δ Estugunea Δ Abiadura murrizteko irtegunea Δ Sakangunea Δ Baztergunea Δ Bat ere ez	<u>■ BAZTERRAREN EZAUGARRIAK</u> Δ Zeru garbi Δ Zuhaitzak Δ Beste elementu natural zurrun batzuk (haitzak...) Δ Eraikinak Δ Zutoinak Δ Publizitate-kartelak Δ Beste elementu artifizial zurrun batzuk Δ Beste oztopo batzuk
<u>BALIZA-ELEMENTUAK</u> Δ Norabide-panelak Δ Ertz-mugarria Δ Argi-islagailua Δ Bat ere ez			
<u>BIDE-MARKAK</u> O Ez daude edo ezabatuta O Erreia banatzeko markak soilik O Erreia banatzekoak eta galtzadaren ertz-markak O Galtzadaren ertz-markak soilik	<u>■ GALTZADAREN MUGAKETA</u> Δ Zintarria Δ Mutiloak edo babes-hesiak Δ Heskaiak Δ Bide-markak Δ Alboko langa	<u>■ GALTZADAREN MUGAKETA</u> Δ Irlatxoa edo oinezkoentzako babesgunea Δ Oinezkoentzako gunea edo lorategia Δ Beste bat Δ Zehaztu gabe	
O ikurrarekin seinalatutako hutsuneak aukera bakarrekoak dira. Δ ikurrarekin seinalatutakoak, ordea, aukera bat baino gehiagokoa dira. ■ ikurrarekin seinalatutakoak istripuan eragina dutenak dira.			

2019ko apirilaren 11, osteguna

■ BIDEAREN INGURUABAR BEREZIAK Δ Bat ere ez Δ Konoak eta beste baliza-elementu mugikor batzuk Δ Zanga edo ildoak Δ Erregistro tapa akastuna Δ Lanak Δ Oztopoa galtzadan Δ Lur-jausiak Δ Koska Δ Zulodun bide-zorua Δ Hondatutako bide-zorua Δ Beste batzuk	ALBOKO LANGA					
		Ez	Metalezkoa	Hormigoizkoa	Beste bat	Motor-zale langa
	Albokoa eta goranzkoa					
	Albokoa eta beheranzkoa					
	Goranzko noranzkoa duen erdibitzailea					
Beheranzko noranzkoa duen erdibitzailea						
ISTRIPU MOTA ETA INGURUABARRAK						
O Bidetik irten GABE O Bidetik eskuinaldetik IRTETEA O Bidetik ezkerretik IRTETEA ISTRIPU MOTA O Aurrez aurreko talka O Aurre-alboko talka O Alboko talka O Atzeko talka O Askoren arteko talka O Bideko elementu edo oztopo baten aurkako talka O Pertsona bat harrapatzea O Animalia bat harrapatzea O Iraulketa O Erorketa O Amiltzea O Bidetik irtenda soilik O Beste bat	■ ZIRKULAZIO-MAILA O Zuria O Berdea O Horia O Gorria O Beltza O Ezezaguna	■ BIDE-ZORUAREN GAINAZALA O Lehorra eta garbia O Lokatza edo hartxintzar solteak dauzka O Bustita O Putzuz beteta edo urez gainezka O Elurtuta O Olio dauka O Izoztuta O Beste bat	■ ARGITASUNA O Eguneko argia, eguzki-argia O Egunsentia zein ilunabarra, argi artifizialik gabe O Egunsentia zein ilunabarra, argi artifizialarekin O Eguneko argirik gabe baina kaleko argi artifizialak piztuta daude O Eguneko argirik gabe eta kaleko argi artifizialak piztu gabe daude O Eguneko argirik eta argi artifizialik gabe			
	■ IKUSPENA MURRIZTU DUENA O Ikuspen ona O Eraikinak O Bideko instalazioak edo elementuak O Lurraren konfigurazioa O Eguzkiak itsutu O Argi artifizialak itsutu O beste ibilgailu baten auto-argiek itsutu O Faktore atmosferikoak		■ EGURALDIA Talde bakoitzeko aukera bat aukeratu daiteke O Zerua garbi O Hodeiak daude O Zirimiria O Euri zaparrada O Kazkabarra O Elurra O Lainoa O Laino itxia O Haize oso gogorra			
Δ Kontrako noranzkoan zirkulatzea						
GAINERATUTAKO BESTE FAKTORE BATZUK						
Δ Arreta galduta edo arretarik gabe gidatzea Δ Lehenetsuna ez errespetatzea Δ Arauz kontrako aurreratzea Δ Zabarkeriaz gidatzea Δ Galtzadan animalia bat agertzea Δ Alkohola Δ Bidearen egoera Δ Nekea edo logura Δ Matxura mekanikoa Δ Ibilgailuaren egoera txarra Δ Seinaleen egoera Δ Beste faktore bat			Δ Abiadura ezegokia Δ Segurtasun-tartea ez gordetzea Δ Biraketa okerra Δ Ausarkeriaz gidatzea Δ Galtzadan oinezko bat sartzea Δ Drogak Δ Eguraldi txarra Δ Gidariaren esperientziarik eza Δ Obrak tarte horretan Δ Gaixotasuna Δ Oztopoa galtzadan			
O Ikurrarekin seinalatutako hutsuneak aukera bakarrekoak dira. Δ ikurrarekin seinalatutakoak, ordea, aukera bat baino gehiagokoak dira. ■ Ikurrarekin seinalatutakoak istripuan eragina dutenak dira.						

2019ko apirilaren 11, osteguna

IBILGAILUAREN MATRIKULA		Bidaiaien kopurua		Trakzio-ibilgailua:	
Ibilgailu mota:		Matrikulazio-data : -		1. matrikulazio data: -	
Marka:		Modeloa:		Kolora:	
Aseguru-etxea		O Bai		O Ez	
		O Ezezaguna		Ateratze data:	
IAT		O Pasata		O Pasatu gabea	
		Aldekoa: -		O Ez du behar	
				O Ezezaguna	
				Azterketa lekua :	
				Iraungitze data: -	
BAI EZ Δ Ibilgailu egokitua: O BAI O EZ Δ Ihesari emana: O BAI O EZ Δ Garraio berezia: O BAI O EZ Δ Su hartutakoa: O BAI O EZ Δ Salgai arriskutsuak: O BAI O EZ Δ Aparkatuta: O BAI O EZ Δ Azken posizioa - erretirata: O BAI O EZ Δ Argien erabilpena: O BAI O EZ Δ Zirkulazioaren noranzkoa O Goranzkoa O Beheranzkoa		■ <u>AURRETIKO ARAZOAK</u> Δ Itxuraz batere ez Δ Pneumatikoak oso gastatuta edo akastunak Δ Leherdura Δ Direkzioa Δ Balaztak Δ Beste batzuk		<u>GEHIEN HONDATUTAKO AZALER</u> Δ Kalterik gabe Δ Ezkerreko aurrez aurrekoa Δ Erdiko aurrez-aurrekoa Δ Eskuineko aurrez-aurrekoa Δ Aurrean, zehaztu gabe Δ Eskuineko atzealdea Δ Erdiko atzealdea Δ Ezkerreko atzealdea Δ Atzealdean, zehaztu gabe Δ Eskuinaldea Δ Ezkerrekoa Δ Goialdea <u>IBILGAILU BATZUEKIN. HAUEK ZIRKULATZEN ZUTEN</u> O Galtzada ezberdinetatik O Galtzada berbera eta erreia berbera O Galtzada berbera baina erreia ezberdina O Galtzada berbera baina erreia ez dago jakiterik	
■ <u>NONDIK ZIRKULATZEN ZUEN</u> O Eskuineko erreia O Ezkerreko erreia O Erdiko erreia O Gaitutako bazterbidea O Azelerazio erreia O Dezelerazio erreia O Txirikorda-erreia O Errei gehigarria zirkulazio motelerako O Errei gehigarria zirkulazio arinerako O Kontrako noranzkoan zirkulatzeko gaitutako erreia O Noranzko- edo norabide-aldaketa egiteko erreia O Autobus-erreia O OHI-erreia O Tranbia-erreia O Erdibitzailea O Bizikleta-espaloia areka O Bizikleta-erreia O Bizikleta-erreia babestua O Bizikleta-pista O Baztergunea O Oinezkoentzako babesgunea O Besterik		<u>ISTRIPU AURREKO MANIOBRA</u> O Bidean zuzen joatea O Eskuineko bihurgunea hartzea O Ezkerreko bihurgunea hartzea O Eskuinetik aurreratzea O Ezkerretik aurreratzea O Eskuineko erreira sartzea O Ezkerreko erreira sartzea O Atzera-martxan joatea O "U" biraketa egitea, 180º, noranzko-aldaketa O Zirkulazio paraleloa O Galtzada zeharkatzea O Zirkulaziora sartzea O Maila handiagoko eskuineko bidera sartzea O Maila handiagoko ezkerreko bidera sartzea O Lehenasuna ematen duen seinalean/semaforoan itxarotea O Bidegurutzera zeharkatzea, biratu gabe O Biribilguneko bidea jarraitzea O Eskuineko beste bide batera itzuli/irtetea O Ezkerreko beste bide batera itzuli/irtetea O Zirkulazioak behartuta geratzea O Maniobra azkarra oztopo/ibilgailu bat saihesteko O Maniobra azkarra oinezko bat saihesteko O Maniobra azkarra animalia saihesteko O B alaztatzea O Eskuinaldean geratuta O Ezkerrealdean geratuta O Aparkatuta/aparkalekutik irtetea O Eskuinaldean aparkatuta O Ezkerrealdean aparkatuta O Ezezaguna			
		<u>GURUTZAGUNEAN GERTATZEN DENEAN</u> <u>BIDEAN DUEN KOKAPENA</u> O Lehenasunezko galtzadatik zirkulatzeko O Bigarren mailako bidetik zirkulatzeko O Ezezaguna		<u>HURBILKETA</u> O Hurbiltzen O Urruntzen O Bidegurutzeko O Ezezaguna	
O Ikurrarekin seinalatutako hutsuneak aukera bakarrekoak dira. Δ ikurrarekin seinalatutakoak, ordea, aukera bat baino gehiagokoak dira. ■ Ikurrarekin seinalatutakoak istripuan eragina dutenak dira.					

2019ko apirilaren 11, osteguna

IBILGAILUAREN MATRIKULA		BIDAIARIEN KOPURUA	
Izena	Abizenak	NAN	
Jaiotze-data: --	Sexua : Gizonezkoa Emakumezkoa	Nazionalitatea :	
<u>IBILGAILUAN DUEN KOKAPENA</u>	<u>KALTEAK</u>	<u>SEGURTASUN OSAGARRIAK</u>	
TURISMOA/KAMIOIA/AUTOBUSA <input type="checkbox"/> Aurreko eserlekua <input type="checkbox"/> Aurre-erdiguneko eserlekua <input type="checkbox"/> Atze-ezkerreko eserlekua <input type="checkbox"/> Atze-eskuineko eserlekua <input type="checkbox"/> Atze-erdiguneko eserlekua <input type="checkbox"/> Beste eserleku batzuk edo ohatzeak <input type="checkbox"/> Zutik <input type="checkbox"/> Umea besoetan	<input type="checkbox"/> 24 orduan hildakoa <input type="checkbox"/> 24 ordutik gorako ospitaleratuta <input type="checkbox"/> 24 orduz edo gutxiago ospitaleratuta <input type="checkbox"/> Larrialdietan laguntza ospitaleratu gabe <input type="checkbox"/> Geroagoko osasun-laguntza anbulatorioan <input type="checkbox"/> Berehalako osasun-laguntza Osasun Zentroan <input type="checkbox"/> Osasun-laguntza soilik istripua gertatu den lekuan <input type="checkbox"/> Osasun-laguntzarik ez <input type="checkbox"/> Ezezaguna	HELDUAK 4 GURPIL <input type="checkbox"/> Segurtasun-uhala EZ <input type="checkbox"/> Segurtasun-uhala BAI <input type="checkbox"/> Ezezaguna	HAURRAK 3 URTETIK /135 cm-TATIK 12 URTERA ARTE AURREKO ESERLEKUAN <input type="checkbox"/> Haurrak Lotzeko Sistema (HLS) <input type="checkbox"/> Segurtasun-uhala BAI <input type="checkbox"/> HLSrik eta segurtasun-uhalik GABE <input type="checkbox"/> Ezezaguna
2 GURPIL/QUAD <input type="checkbox"/> Bidaiariaren kokapena <input type="checkbox"/> Beste bidaiariaren bat	Eramandako ospitalearen izena: Heriotza-data: Heriotza-ordua:	2 GURPIL/QUAD/BIZIKLETA <input type="checkbox"/> kaskoa BAI <input type="checkbox"/> Kaskoa EZ <input type="checkbox"/> Ustez jautikitako kaskoa <input type="checkbox"/> Ezezaguna	
<u>BIDAIARIAREN EKINTZA BEREZIA</u> <input type="checkbox"/> Ibilgailutik jaisten edo ibilgailura igotzen <input type="checkbox"/> Ibilgailutik bidera erorita <input type="checkbox"/> Autobusean erorita	<u>ZENBATZEKO EZ DIRENAK</u> <input type="checkbox"/> Heriotza naturala <input type="checkbox"/> Suizidioa <input type="checkbox"/> Suizidio saiakera <input type="checkbox"/> Giza hilketa saiakera	<u>BESTE SEGURTASUN-OSAGARRI BATZUK</u> <input type="checkbox"/> Besoak <input type="checkbox"/> Bizkarra <input type="checkbox"/> Enborra <input type="checkbox"/> Eskuak <input type="checkbox"/> Hankak <input type="checkbox"/> Oinak <input type="checkbox"/> Jantzi islatzailea	
<input type="checkbox"/> Ikurrarekin seinalatutako hutsuneak aukera bakarrekoak dira. <input type="checkbox"/> Ikurrarekin seinalatutakoak, ordea, aukera bat baino gehiagokoak dira. <input type="checkbox"/> Ikurrarekin seinalatutakoak istripuan eragina dutenak dira.			

2019ko apirilaren 11, osteguna

OINEZKOA			
Izena	Abizenak		NAN
Jaiotze data: --	Sexua : Gizonezkoa	Emakumezkoa	Nazionalitatea :
<u>KALTEAK</u>	<u>SEGURTASUN OSAGARRIAK</u>		
O 24 orduan hilda	O Islatzailerik GABE	O Txalekoarekin	
O 24 ordutik gora ospitaleratu	O Beste islatzaile batekin	O Ezezaguna	
O 24 orduz edo gutxiago ospitaleratu	<u>JOAN-ETORRIAREN ARRAZIOA</u>		
O Larrialdietan laguntza ospitaleratu gabe	O Garbitzeko edo Zaborra biltzeko zerbitzua	O Aisia eta entretenimendua	
O Geroagoko osasun-laguntza anbulatorioan	O Bideko mantentze-zerbitzua	O Ikaslea eskolarako bidean	
O Berehalako osasun-laguntza Osasun Zentroan edo Mutualitatean	O Suhiltzaileak, Polizia, Anbulantzia	O Adingabeen garraioa eskolarako bidean	
O Osasun-laguntza soilik istripua gertatu den lekuan	O In Itinere	O Beste jarduera batzuk	
O Osasun-laguntzarik ez	O Misioan	O Ezezaguna	
O Ezezaguna	<u>OINEZKOAREN EKINTZA ISTRIPUAREN AURRETIK</u>		
Eramandako ospitalearen izena:	O Aparkatutako ibilgailuen artetik irtetea	O Galtzadan edo baztergunean oinez	
Heriotza-data:	O Galtzadan, autobus geltokiaren aurrean	O Galtzadan edo baztergunean geldirik	
Heriotza-ordua:	O Galtzada bidegurutzearen aurretik zeharkatzea	O Galtzadan edo baztergunean lanean	
<u>ZENBATZEDO EZ DIRENAK</u>	O Galtzada bidegurutzearen ondok zeharkatzea	O Ibilgailua konpontzen	
O Heriotza naturala	O Galtzada sekzioan zeharkatzea	O Errepideko laguntza zerbitzua	
O Suizidioa	O Baztergunean oinez edo geratuta	O Bidera botatzea (zubia, eraikina...)	
O Suizidio saiakera		O Galtzadan sartzea korrika edo jolasean	
O Giza hilketa		O Aurretik gertatutako istripuari laguntza ematea	
O Giza hilketa saiakera		O Ezezaguna	
■ARRETARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK	O Mugikorra erabiltzea		
		O Pentsakor egotea	
■BESTE ARAU-HAUSTE BATZUK	O Irratia, DVD, bideoa, aurikularrak etab. erabiltzea	O Bat-bateko gaixotasuna/ Ondoeza	
O Arau-hausterik ez	O Aurretik gertatutako istripuaren presentzia	O Ez da faktorerik hautematen	
O Oinezkoen semaforoa EZ errespetatzea	O Ingurunea begiratzea: Paisaia, publizitatea, seinaleak.		
O Zebra-bidea erabili GABE zeharkatzea	■OINEZKOEN USTEZKO AKATSAK	O Ez da akatsik hautematen	
O Bidean egon zein bidetik ibiltzea araututakoa bete gabe		O EZ du trafiko-seinalea ulertu edo nahastu da	
O Zirkulazio-agentearen aginduak ez betetzea	O EZ du seinalea ikusi	O Erabakia hartzerakoan zalantzak izan edo beranduegi hartu	
O Beste arau-hauste batzuk	O EZ du ibilgailua, oinezkoa, oztopoa,... ikusi	O Maniobra gaizki egin edo maniobra desegokia aukeratu	
O Ezezaguna			
■ ALKOHOL-PROBA	O Bai O Ez	■ DROGA-PROBA	O Bai O Ez
O Ukatzen du	1. proba: Eguna:	O Ukatzen du	Proba: O Listua O Odola O Beste batzuk
O Ezindua	Ordua:	O Ezindua	
O Kanpoan	Emaita: mg/l	O Kanpoan	
O Ez dago Alcoholest-a	2. proba: Eguna:	O Ez dago Test-a	
O Zerbitzuaren beharretara	Ordua:	O Zerbitzuaren beharretara	Emaita: Positiboa/ Negatiboa
O Beste batzuk	Emaita: mg/l	O Beste batzuk	Δ AMP O BAI O EZ O BAI O EZ
	Odol-proba:		Δ COC O BAI O EZ O BAI O EZ
			Δ THC O BAI O EZ O BAI O EZ
<u>ERAGINA DUTEN ZEINUA</u>		<u>ERAGINA DUTEN ZEINUA</u>	Δ OPI O BAI O EZ O BAI O EZ
O Seinalagabeak	Emaita: g/l	O Seinalagabeak	Δ METH O BAI O EZ O BAI O EZ
O Seinaladunak	Etilometroa Modeloa	O Seinaladunak	Δ Beste bat O BAI O EZ O BAI O EZ
ISTRIPUAREN USTEZKO ERANTZULEA: O BAI O EZ O EZEZAGUNA			
O Ikurrarekin seinalatutako hutsuneak aukera bakarrekoak dira. Δ ikurrarekin seinalatutakoak, ordea, aukera bat baino gehiagokoak dira. ■ Ikurrarekin seinalatutakoak istripuan eragina dutenak dira.			

2019ko apirilaren 11, osteguna

GIDARIA			
Izena	Abizenak	NAN	Nazionalitatea : --
Sexua : Gizonezkoa Emakumezkoa			
Jaiotze data: --			
Gidabaimena:	<input type="checkbox"/> Indarreen <input type="checkbox"/> Berekalako osasun-laguntza Osasun Zentroan edo Mutualitatean <input type="checkbox"/> Trukatutakoa <input type="checkbox"/> Osasun-laguntza SOILIK istripua gertatu den lekuan <input type="checkbox"/> Desegokia <input type="checkbox"/> Osasun-laguntzarik ez <input type="checkbox"/> Iraungita <input type="checkbox"/> A1-A (motor-gidari) gabe - 125 cc baimendutako B		<input type="checkbox"/> Ezeztatuta edo etenda <input type="checkbox"/> Ez du aurkeztu <input type="checkbox"/> Ez du inoiz izan <input type="checkbox"/> Puntu guztiak galduta- deklaraturata <input type="checkbox"/> Ez du behar baimendutako B
Jaulkitze-data:			
<p>KALTEAK Eramandako ospitalearen izena: ZENBATZEKO EZ DIRENAK</p> <p><input type="checkbox"/> O 24 orduan hilda <input type="checkbox"/> Berrehalako osasun-laguntza Osasun Zentroan edo Mutualitatean Heriotza-data: <input type="checkbox"/> O Heriotza naturala</p> <p><input type="checkbox"/> O 24 orduetik gora ospitaleratua <input type="checkbox"/> O Osasun-laguntza SOILIK istripua gertatu den lekuan Heriotza-ordua: <input type="checkbox"/> O Suizidioa</p> <p><input type="checkbox"/> O 24 orduz edo gutxiago ospitaleratua <input type="checkbox"/> O Osasun-laguntzarik ez GIDARIAREN EKINTZA BEREZIA <input type="checkbox"/> O Suizidio saiakera</p> <p><input type="checkbox"/> O Larrialdietan laguntza ospitaleratu gabe <input type="checkbox"/> O Ezezaguna <input type="checkbox"/> O Ibilgailutik jaisten edo ibilgailura igotzen <input type="checkbox"/> O Giza hilketa</p> <p><input type="checkbox"/> O Geroagoko osasun-laguntza anbulatorioan <input type="checkbox"/> O Ibilgailutik bidera erorita <input type="checkbox"/> O Giza hilketa saiakera</p>			
<p>■ ALKOHOL-PROBA O Bai O Ez</p> <p>O Ukatzen du 1. Proba: Eguna:</p> <p>O Ezindua Ordua:</p> <p>O Kanpoan Emaiza: mg/l</p> <p>O EZ dago Alcoholest-a 2. Proba: Eguna:</p> <p>O Zerbitzuaren beharretara Ordua:</p> <p>O Beste batzuk Emaiza: mg/l</p> <p>Odol-proba:</p> <p>ERAGINA DUTEN ZEINUA</p> <p>O Seinalagabeak Emaiza: g/l</p> <p>O Seinaledunak Etilometroa Modeloa</p>		<p>■ DROGA-PROBA O Bai O Ez</p> <p>O Ukatzen du Proba: O Listua O Odola O Beste batzuk</p> <p>O Ezindua</p> <p>O Kanpoan</p> <p>O EZ dago test-a</p> <p>O Zerbitzuaren beharretara Emaiza: Positibo/Negatibo</p> <p>O Beste batzuk Δ AMP O BAI O EZ BERRETSITA: BAI/EZ</p> <p>Δ COC O BAI O EZ O BAI O EZ</p> <p>Δ THC O BAI O EZ O BAI O EZ</p> <p>ERAGINA DUTEN ZEINUA Δ OPI O BAI O EZ O BAI O EZ</p> <p>O Seinalagabeak Δ METH O BAI O EZ O BAI O EZ</p> <p>O Seinaledunak Δ Beste bat O BAI O EZ O BAI O EZ</p>	
<p>SEGURTASUN OSAGARRIAK</p> <p><input type="checkbox"/> O segurtasun-uhala EZ <input type="checkbox"/> O Besoak</p> <p><input type="checkbox"/> O Segurtasun-uhala BAI <input type="checkbox"/> O Bizkarra</p> <p><input type="checkbox"/> O Kaskoa BAI <input type="checkbox"/> O Enborra</p> <p><input type="checkbox"/> O Kaskoa EZ <input type="checkbox"/> O Eskuak</p> <p><input type="checkbox"/> O Ustez jaurtitako kaskoa <input type="checkbox"/> O Hankak</p> <p><input type="checkbox"/> O Ezezaguna <input type="checkbox"/> O Oinak</p> <p><input type="checkbox"/> O Jantzi islatzailea</p>		<p>BESTE SEGURTASUN-OSAGARRIAK</p> <p><input type="checkbox"/> O Ez da akatsik hauteman</p> <p><input type="checkbox"/> O EZ du seinalea ikusi</p> <p><input type="checkbox"/> O EZ du ibilgailua, oinezkoa, oztopoa, ... ikusi</p> <p><input type="checkbox"/> O EZ du trafiko-seinalea ulertu edo nahastu da</p> <p><input type="checkbox"/> O Erabakia hartzerakoan zalantzak izan edo beranduegi hartu</p> <p><input type="checkbox"/> O Gaizki egindako maniobra edo maniobra desegokia</p> <p><input type="checkbox"/> O Ahaztutakoak: Argi keinukariak, argiak...</p>	
<p>■ ARRETARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK</p> <p><input type="checkbox"/> O Mugikorra erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Esku libreko komunikazio-sistema erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> O GPS nabigatzailea erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Irratia, DVD, bideoa, aurikularrak etab. erabiltzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Erretzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Gidatzen den bitartean edatea, jatea, objektuak bil</p> <p><input type="checkbox"/> O Bidaiariekin elkarrekintza</p> <p><input type="checkbox"/> O Aurretik gertatutako istripuaren presentzia</p> <p><input type="checkbox"/> O Ingurunea begiratzea: paisaia, publizitatea, seinaleak</p> <p><input type="checkbox"/> O Pentsakor egotea</p>		<p>■ GIDARIAREN USTEZKO AKATSAK</p> <p><input type="checkbox"/> O Ustez ez dago arau-hausterik</p> <p><input type="checkbox"/> O STOP zirkulazio-seinalea EZ errespetatzea</p>	
<p>■ ABIADURA ARAU-HAUSTEAK</p> <p><input type="checkbox"/> O Bat ere ez</p> <p><input type="checkbox"/> O Bideko egoera kontuan hartuta, abiadura ezegokia</p> <p><input type="checkbox"/> O Ezarritako abiadura gainditzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Zirkulazioa oztopatzen duen abiadura motela</p> <p><input type="checkbox"/> O Ezezaguna</p>		<p>■ GIDARIAREN USTEZKO ARAU-HAUSTEAK</p> <p><input type="checkbox"/> O UTZI PASATZEN seinalea EZ errespetatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O SEMAFOROA EZ errespetatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O LEHENTASUN ARAU OROKORRA EZ errespetatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O OINEZKOENTZAKO PASABIDEA EZ errespetatzeagelditzea edo aparkatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O LEHENTASUN-SEINALEAK EZ errespetatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O KONTRAKO NORANZKOAN pixka bat sartzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Sigi-Saga eginez zirkulatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Behar ez bezala biratzea edo noranzkoa aldatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Behar ez bezala zirkulatzea atzera martxan</p> <p><input type="checkbox"/> O Arauz kontra aurreratzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Balaztatzea arrazoi justifikaturik gabe</p> <p><input type="checkbox"/> O Segurtasun-tartea ez gordetzea</p>	
<p>LOGURAREN USTEZKO ERANTZULEA: O Bai O Ez O EZEZAGUNA</p>		<p>■ DEBEKATUTA/ARRISKUTSUA DEN TOKIAN GELDITzea edo aparkatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Debebatuta/arriskutsua den tokian gelditzea edo aparkatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Larrialdi-argirik gabe</p> <p><input type="checkbox"/> O Larrialdietako triangulurik gabe</p> <p><input type="checkbox"/> O Maniobra Ez adieraztea edo gaizki adieraztea</p> <p><input type="checkbox"/> O Kontrako noranzkoan zirkulatzea: _____ km</p> <p><input type="checkbox"/> O Debekatuta dagoen tokitik zirkulatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Lehiaketak edo lasterketak</p> <p><input type="checkbox"/> O Ezezaguna</p>	
<p>■ BESTE ARAU-HAUSTE BATZUK</p> <p><input type="checkbox"/> O Bat ere ez</p> <p><input type="checkbox"/> O Argirik gabe zirkulatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Itsualdia eragiten zirkulatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Arauz kontrako zama-kokapena</p> <p><input type="checkbox"/> O Gehiegizko zama</p> <p><input type="checkbox"/> O Zama askatzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Ateak kontuz ibili gabe irekitzea</p> <p><input type="checkbox"/> O Bidaiari gehiegi</p> <p><input type="checkbox"/> O Beste arau-hauste bat</p> <p><input type="checkbox"/> O Ezezaguna</p>		<p>JOAN-ETORRIAREN ARRAZOAIA</p> <p><input type="checkbox"/> O In Itinere (gidari profesionala EZ dena)</p> <p><input type="checkbox"/> O Autoeskolako gidatze- eta zirkulatze-praktikak</p> <p><input type="checkbox"/> O Taxi</p> <p><input type="checkbox"/> O Hiri-autobusa</p> <p><input type="checkbox"/> O Eskola-autobusa</p> <p><input type="checkbox"/> O Adingabekoen garraio-autobusa</p> <p><input type="checkbox"/> O Linea erregularreko autobusa</p> <p><input type="checkbox"/> O Eskatu ahalako autobus zerbiltza</p> <p><input type="checkbox"/> O Garbitzeko edo zaborra biltzeko zerbiltza</p> <p><input type="checkbox"/> O Bideko mantentze-zerbiltza</p> <p><input type="checkbox"/> O Suhiltzaileak, Polizia, Anbulantzia</p>	
<p>LEKUALDAKETA</p> <p><input type="checkbox"/> O Tokikoa</p> <p><input type="checkbox"/> O Erdia (50-200 km./h.)</p> <p><input type="checkbox"/> O Luzea (>200 km./h.)</p> <p><input type="checkbox"/> O Ezezaguna</p>			
<p>O Ikkurrekin seinalatutako hutsuneak aukera bakarreko dira. Δ Ikkurrekin seinalatutakoak, ordea, aukera bat baino gehiagokoak dira. ■ Ikkurrekin seinalatutakoak istripuan eragina dutenak dira.</p>			

2019ko apirilaren 11, osteguna

ISTRIPUAREN SEKUENTZIA - METRAS SISTEMA (ISTRIPU LARRI EDO HILGARRIEN KASUAN BETE)			
<u>ISTRIPUAREN SEKUENTZIA</u>			<u>UNITATE INPLIKATUAK</u>
UNITATE INPLIKATUAK	GERTAERAK	GERTAERARIK LARRIENA	
			I1: G1: B1:
			I2: G2: B2:
			I3: G3: B3:
			I4: G4: B4:
			I5: G5:
			<u>GERATERA-MOTAK</u>
			<u>IBILGAILUEN ARTEKO TALKA</u> <u>BIDEKO ELEMENTU FINKOEN KONTRAKO TALKA</u>
			1. Aurrez aurreko talka 28. Biribilgunearen kontrako talka
			2. Aurre alboko talka, eskuinaldean eragina duena 29. Oinezkoentzako babesgunearen kontrako talka
			3. Aurre alboko talka, ezker aldean eragina duena 30. Espaloi zein zintariaren kontrako talka
			4. Alboko talka 31. Mutiloien kontrako talka
			5. Arraspatu positiboa 32. Zirkulazio-seinalearen kontrako talka
			6. Arraspatu negatiboa 33. Heskai zein zuhaixken kontrako talka
			7. Atzeko talka 34. Zuhaitzaren kontrako talka
			8. Alderantziko talka 35. Farolaren edo zutoinen kontrako talka
			9. Atze alboko talka 36. Edukiontzien kontrako talka
			10. Bete-betean jotzea 37. Iturri zein estatuen kontrako talka
			<u>HARRAPATZEA</u> 38. Autobus-geltokiaren kontrako talka
			11. Harrapatzea: Oinezkoa 39. Urbanizazioko beste elementuren kontrako talka
			12. Harrapatzea: Animalia 40. Alboko langaren kontrako talka
			<u>ERORKETA</u> 41. Trenbide-pasagune langadunaren aurkako talka
			13. Erorketa: bidean 42. Bideko beste elementuen kontrako talka
			Bidaia irorketa
			14. Autobusean 43. Bidetik at dauden elementuen aurkako talka
			<u>GALTZADAKO OZTOPOEN KONTRAKO TALKA</u> <u>BIDETIK AT DAUDEN ELEMENTUEN AURKAKO TALKA</u>
			15. Obra-elementuen kontra 43. Etxea, horma edo eraikuntza
			16. Seinalez tapen kono edo beste baliza mugikorren kontra 44. Bidetik at dagoen landareta
			17. Defentsa hesiaren kontra 45. Bidetik at dauden beste elementuak: paperontziak, jardinerak, eserlekuak, publizitatea, beste batzuk
			18. Lur-jauzien kontra
			19. Eskuinaldean geratutako kotxearen kontra
			20. Ezker aldean geratutako kotxearen kontra
			21. Ibilgailuen zama edo beste elementuren kontra
			22. Aurrez istripua izan duten kotxeen kontra
			<u>GALTZADATIK IRTETEA</u>
			23. Bideko eskuinetik irtenda beste bide edo galtzada inbaditu gabe 46. Berarekiko biraketa
			24. Bideko eskuinetik irtenda beste bide edo galtzada inbaditzen 47. Kanpai-itzuliak
			25. Bideko ezkerretik irtenda beste bide edo galtzada inbaditu gabe 48. Amiltzea edo lur-erazketaren ondoriozko erorketa
			26. Bideko ezkerretik irtenda beste bide edo galtzada inbaditzen 49. Ibilgailuaren iraulketa galtzada berean
			27. Bidera itzulita 50. Ibilgailuaren iraulketa kontrako galtzadan
			51. Ibilgailuaren iraulketa bidetik at
			52. Ibilgailuaren sutea
			53. Beste gertaera mota
			<u>GERTAERA GABE NAHASTUTAKO IBILGAILUA</u>
			59. Gertaerarik gabe zein talka edo jotze gabe nahasia

2019ko apirilaren 11, osteguna

ISTRIPUAREN KROKISA

ISTRIPUAREN DESKIPZIOA (DATU PERTSONALIK GABE)

OHARRAK (DATU PERTSONALAK AGERTU DAITEZKE)

2019ko apirilaren 11, osteguna

II. ERANSKINA

I. ERANSKINEKO INPRIMAKIA BETETZEKO IRIZPIDEAK ETA ISTRIPUETAN INPLIKATUTA DAUDEN PERTSONEN SAILKAPENA

A) Biktimak eragin dituzten trafiko-istripuen inprimakia (I. eranskina) betetzeko irizpideak:

1.– Biktimak eragin dituen trafiko-istripua.

1.1.– Ezaugarri hauek izan behar dituzte:

a) Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko arauen eraginpean dauden bideetan edo lurretan gertatzea edo sortzea.

b) Istripuen ondorioz pertsona bat edo gehiago hiltzea edo zauritzea.

c) Istripuan, mugitzen ari den ibilgailu batek gutxienez egon behar du inplikaturik. Ibilgailuaren definizioa da Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren I. eranskinaren 6. puntuan adierazitakoa. Horrenbestez, istripuak dira tranbiak, trenak eta errailetan dabiltzan gainerako ibilgailuak inplikaturik dauden kasuak ere, betiere zirkulazioari buruzko gai diren eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina aplikagarri den bide eta lursail publikoetan gertatzen badira.

1.2.– Ez dira 1.1 apartatuan sartuko:

a) Baieztatutako heriotza naturalek, edo suizidio nahiz suizidio-saiakera zantzuak dituzten kasuak eragindako istripuak, salbu eta beste pertsona batzuei kalteak eragiten zaizkienean.

b) Giza hilketak, hirugarrenei nahita eragindako lesioak edo jabetzei nahita eragindako kalteak.

1.3.– Ibilgailu bi baino gehiagoren arteko talka anitzak istripu bakartzat joko dira, baldin eta bata bestearen segidan gertatu badira.

2.– Trafiko-istripu batean inplikaturik dagoen ibilgailua.

Ibilgailu bat zirkulazio-istripu batean inplikaturik dagoela joko da honako egoera hauetako bat gertatzen bada:

a) Ibilgailuak talka egin behar du:

– Mugitzen ari den edo geldirik edo aparkaturik dagoen beste ibilgailu batekin edo gehiagorekin.

– Oinezkoekin.

– Animaliekin.

– Beste oztopo batekin.

b) Talka egitera iritsi ez arren, istripuaren ondorioz gidaria edota bidaideren bat hiltzen edo zauritzen bada, edo bakarrik kalte materialak eragin baditu.

c) Ibilgailua bada istripuaren eragileetako bat, modu arriskutsuan geldirik edo aparkaturik egoteagatik.

d) Ibilgailuak edo bidaideak istripuan zuzeneko ondorioz izan ez arren, gidariaren edo bidaideren baten portaera bada istripuaren eragileetako bat.

e) Ibilgailu baten gidaria edo bidaidea beste ibilgailu batek harrapatzen badu ibilgailura igotzen edo jaisten ari den unean, edo ibilgailutik bidera erori ondoren; kasu horietan, bi ibilgailuak inplikaturik daudela joko da.

3.– Trafiko-istripu batean inplikaturako dagoen pertsona.

Zirkulazio-istripuan inplikaturako dagoen joko da aurreko puntuan adierazitako ibilgailuetako bidaideak, bai eta oinezkoak ere, zirkulazio-istripuak eragiten badie edo haien portaera istripuaren eragileetako bat izan bada, honako definizio hauei jarraituz:

a) «Gidaria»: istripua gertatzen den unean zirkulazio-istripuan inplikaturako ibilgailu baten direkzio-mekanismoa darabilen pertsona. Gidatzen irakasteko erabiltzen diren ibilgailuen kasuan, managailu gehigarrien ardura daukan pertsona da gidaria.

b) «Bidaidea»: gidaria izan gabe ibilgailuaren barruan edo gainean dagoen edozein pertsona, edo ibilgailura igotzen edo jaisten dabilen bitartean harrapatzen dutena. Ibilgailuaren direkzio-mekanismoa erabiltzeari utzi eta ibilgailura igotzen edo jaisten ari diren bitartean harrapatzen dituzten gidariak ere bidaidetzat jotzen dira.

c) «Oinezkoa»: gidaria edo bidaidea izan gabe zirkulazio-istripu batean inplikaturako dagoen edozein pertsona.

Oinezkotzat jotzen dira ume-kotxe bat, mugikortasun urriko pertsona baten kotxe bat edo motorrik gabeko beste edozein ibilgailu txiki bultzaka edo herrestan daramatenak; bi gurpileko ziklo bat, ziklomotor bat edo motozikleta bat oinez daramatenak; motordun nahiz motorrik gabeko gurpildun aulkian dabiltzan pertsonak; patinez edo antzeko gailuez dabiltzan pertsonak; ibilgailua konpontzen, bultzatzen edo beste edozer egiten dabiltzala ibilgailutik kanpo dauden pertsonak, eta ibilgailutik jaitsi ondoren oinez doazela harrapatzen dituzten gidariak nahiz bidaideak.

Halaber, oinezkotzat jotzen dira zela-abere baten gainean dabiltzan pertsonak eta animalia bat edo gehiago zuzentzen duten pertsonak, baina soilik istripuen formularioak betetzeko orduan, eta betiere kontuan hartu beharko dira Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren I. eranskinean ezarritako definizioak.

B) I. eranskinaren inprimakian aipatzen diren pertsonen sailkapena, trafiko-istripuetan inplikaturako daudenena.

1.– «Biktima»: trafiko-istripu baten ondorioz hiltzen edo zauritzen den edozein pertsona, honako sailkapen honen arabera:

a) «Hogeita lau ordua hildakoa»: trafiko-istripu baten ondorioz unean bertan edo ondorengo hogeita lau orduetan hiltzen den pertsona. Horretarako, ospitaleratutako zauritu guztien jarraipena egingo dute zirkulazioa zaintzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen diren agenteek.

b) «Hogeita lau ordu baino gehiago ospitaleratutako zauritua»: trafiko-istripu baten ondorioz ospitalean hogeita lau ordu baino gehiago ematen dituen pertsona.

c) «Hogeita lau orduz edo gehiagorako osasun-laguntza jasotako zauritua»: trafiko-istripu baten ondorioz zaurituta egonik ospitalean hogeita lau ordu baino gehiago eman behar izan ez duen pertsona, eta dagokion osasun-laguntza jaso duena.

Orobat biktimatzat jotzen dira beste erabiltzaile baten heriotza naturalak, suizidioak edo suizidio-saiakerak eragindako istripuaren ondorioz hildako edo zauritutako pertsonak. Sailkapen honetatik kanpo daude heriotza naturala izan dela baieztatutako kasuak edo suizidio-zantzia dutenak.

2.– «Lesiogabea»: trafiko-istripu batean inplikaturako egonik zauritzen denaren edo hogeita lau ordua hiltzen denaren definizioekin bat ez datorren pertsona.

III. ERANSKINA

I. ERANSKINEKO INPRIMAKIKO DATUAK, AZKAR EMATEKO DIRENAK

1.– Informazio orokorra. Istripua gertatu den lekua, ordua eta eguna, herria, kalea eta zenbakia, errepidearen izena eta kilometro-puntua, istripua gertatu den bidearen noranzkoa, istripuan inplikaturik dauden ibilgailuen kopurua, biktima-kopurua, hogeita lau ordura hil direnen kopurua, hogeita lau ordu baino gehiago ospitaleratutako zaurituen kopurua, hogeita lau orduz edo gehiagoz osasun-laguntza jasotako zaurituen kopurua, lesiogabeen kopurua, bide-mota, bidearen titulartasuna, lotunea, istripu-mota, zoruaren gainaldea, argiztapena, eguraldia eta kontrako noranzkoan zirkulatzea.

2.– Ibilgailuari buruzko informazioa. Ihesean joandako ibilgailua, suak hartutako ibilgailua, matrikula, nazionalitate-kodea, zenbat pertsona doazen auto barruan, istripua lotunearen eragin-eremuan gertatzen denean, ibilgailuaren kokapena bidean edo lotunetik zein hurbil dagoen, zirkulazioaren noranzkoa, ibilgailuak istripua gertatu aurretik egiten duen maniobra, eta aparkatuta dagoen ibilgailua.

Ibilgailuaren matrikula Espainiakoa ez bada, datu hauek ere emango dira: lehenengo matrikulazio data, marka, modeloa, ibilgailu-mota eta BGMA.

3.– Gidariari buruzko informazioa. Ibilgailu-kodea, jaioteguna, sexua, nazionalitatea, segurtasun-osagarriak, kaltegarritasuna, alkohol-proba: egindako alkohol-proba, 1. aire-tasa, 2. aire-tasa, alkoholaren eragina duten zeinuak, droga-proba: egindako droga-proba, testatutako substantzien probaren emaitza, drogen eragina duten zeinuak, gidariaren ustezko arau-hausteak, ustezko abiadura arau-hausteak, ustezko abiadura arau-hausteak eta beste arau-hauste batzuk.

4.– Oinezkoari buruzko informazioa. Jaioteguna, sexua, nazionalitatea, segurtasun-osagarriak, kaltegarritasuna, alkohol-proba: egindako alkohol-proba, 1. aire-tasa, 2. aire-tasa, alkoholaren eragina duten zeinuak, droga-proba: egindako droga-proba, testatutako substantzien probaren emaitza, drogen eragina duten zeinuak eta oinezkoaren ustezko arau-hausteak.

5.– Bidaideari buruzko informazioa. Ibilgailu-kodea, jaioteguna, sexua, nazionalitatea, ibilgailu barruko kokapena, segurtasun-osagarriak eta kaltegarritasuna.

2019ko apirilaren 11, osteguna

IV. ERANSKINA

BESTE INFORMAZIO-ITURRI BATZUEK TRAFIKO ISTRIPUEN BIKTIMEN EUSKAL ERREGISTRORA BIDALI BEHARREKO DATUAK

Osasun-zentroak	Izen-abizenak
	Nortasun-agiri nazionala, pasaportearen edo beste identifikazio-dokumenturen bat.
	Ospitaleratutako zauritu larrien egoera, istripua gertatu eta 30 egunera:
	a) Alta-Data
	b) Oraindik ospitalean dago
	c) Hilda-Data
	Ospitaleratua izateko diagnostikoa (Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena).
Euskal Estatistika Erakundea	Izen-abizenak
	Nortasun-agiri nazionala, pasaportearen edo beste identifikazio-dokumenturen bat.
	Hantxe bertan edo trafiko-istripua gertatu eta 30 eguneko epean hiltzen direnak. Hortik kanpo utziko dira heriotza naturala gertatu dela baieztatzen diren kasuak eta suizidio-zantzuak dituztenak.
Errepideen titularrak	Biktimak eragin dituzten trafiko-istripuak horien titulartasuneko errepideetan gertatu badira, errepide horiei buruzko datuak osatu eta zuzentzea.

2019ko apirilaren 11, osteguna

V. ERANSKINA

TRAFIKO-ISTRIPUEN BIKTIMEN EUSKAL ERREGISTROAREN
ESTATISTIKA-ADIERAZLE NAGUSIEN DEFINIZIOAK

Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan bildutako informazioaren ondoriozko estatistika prestatze aldera, adierazle nagusiak zehazten dira:

a) Istripuen larritasuna kontuan harturik:

– «Biktimak eragin dituen trafiko-istripua»: II. eranskinaren A) 1. puntuan deskribatzen diren gorabeherak biltzen dituen istripua.

– «Trafiko-istripu hilgarria»: biktimak eragin dituen trafiko-istripua, baldin eta gutxienez biktime-tako bat hiltzen bada, eranskin honen b) puntuan xedatutakoari jarraikiz.

– «Trafiko-istripu larria»: biktimak eragin dituen trafiko-istripua, trafiko-istripu hilgarria ez dena, baldin eta gutxienez istripuan inplikaturik dagoen pertsona bat zaurituta badago, eta hogeita lau ordu baino gehiago ematen baditu ospitalean, eranskin honen b) puntuan xedatutakoari jarraikiz.

b) Lesioen larritasuna kontuan harturik:

– «Hildakoa»: trafiko-istripu baten ondorioz unean bertan edo istripua gertatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan hiltzen den pertsona. Hortik kanpo utziko dira heriotza naturala gertatu dela baieztatzen den kasuak eta suizidio-zantzuak dituztenak.

– «Hogeita lau ordu baino gehiago ospitaleratutako zauritua»: Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan halakotzat hartzen den pertsona oro, II. eranskinaren B) 1.b) puntuan zehaztuta dagoen bezala.

– «Hogeita lau orduz edo gutxiagoz osasun-laguntza jasotako zauritua»: Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan halakotzat hartzen den pertsona oro, II. eranskinaren B) 1.c) puntuan zehaztuta dagoen bezala.